

Heriotzen estatistika, heriotza-arrazoien arabera 2022. urtea - Behin betiko datuak

Tumoreak (% 24,9) eta sistema kardiobaskularreko gaixotasunak (% 23,8) dira berriz ere heriotza-arrazoi nagusiak Nafarroako Foru Komunitatean

COVID-19ak (birus identifikatuak) eragindako heriotzak guztien % 8,5 izan ziren 2022an

2023ko abenduaren 19a

Infekzio- eta parasito-gaixotasunak (COVID-19a –birus identifikatua– barne) hirugarren heriotza-arrazoia izan ziren (% 9,7)


HERIOTZA-ARRAZOIAK GAIKOTASUN TALDEEN ARABERA

2022. urtean, 6.317 heriotza izan ziren Nafarroan, hau da, aurreko urtean baino % 9,5 gehiago. Sexua kontuan hartuta, 3.224 gizon eta 3.093 emakume hil ziren.

2022. urtean, heriotza-arrazoi nagusiak, gaixotasun talde handien arabera sailkatuak, *tumoreak* (% 24,9) eta *sistema kardiobaskularreko gaixotasunak* (% 23,8) izan ziren. *Gaixotasun infekziosoak* hirugarren heriotza-arrazoia izan ziren (% 9,7).

1. GRAFIKOA

Heriotza-arrazoi nagusiak gaixotasun taldeen arabera (%).2022. urtea.



Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

Gizonak. Heriotzen kopuruak % 7,9ko igoera izan zuen aurreko urtearekin alderatuta. Talde nagusi bakoitzaren ehunekoa aurreko urtekoarekin alderatuz gero ikus daitekeenez, igoerarik esanguratsuen *arnas sistemako gaixotasunek* eragindako heriotzen kopuruan gertatu zen (2,4 portzentaje-puntuko igoera). Aldiz, *tumoreek* eragindako heriotzek izan duten jaitsiera nabarmendu da, 3,8 portzentaje-puntukoa.

Emakumeak. Aurreko urtearekin alderatuta, heriotzak % 11,2 gehiago izan ziren. Termino erlatiboetan, *infekzio- eta parasito-gaixotasunek* eragindako heriotzek gora egin zuten (3,0 portzentaje-puntuko igoera aurreko urtearekin alderatuta), eta jaitsierarik handiena, berriz, *tumoreek* eragindako gaixotasunen kopuruan gertatu zen (5,2 portzentaje-puntuko jaitsiera).

OINARRIZKO HERIOTZA-ARRAZOIAREN ARABERA

Zehazkiago, *gaixotasun infekziosoen* taldeko *COVID-19 birus identifikatua* izan zen heriotza-arrazoi nagusia 2022. urtean; 537 heriotza eragin zituen, hau da, aurreko urtean baino % 8,5 gehiago. Haren atzetik, *nahasmendu mental organikoak*, *zahartzarokoak* eta *zahartzaro aurrekoak* eta *gaixotasun zerebrobaskularrak* kokatu ziren.

Gizonak. Gizonen artean, *COVID-19 birus identifikatua* izan zen heriotza-arrazoi nagusia (266 heriotza). Bigarren arrazoa *trakeako*, *bronkioetako* eta *biriketako tumoreak* izan ziren (240 heriotza). Hirugarren eta laugarrena, berriz, *gaixotasun zerebrobaskularrak* eta *nahasmendu mental organikoak*, *zahartzarokoak* eta *zahartzaro aurrekoak* izan ziren.

Emakumeak. Emakumeen kasuan ere, arrazoi nagusia *COVID-19 birus identifikatua* izan zen (271 heriotza eragin zituen), eta, haren atzetik, *nahasmendu mental organikoak*, *zahartzarokoak* eta *zahartzaro aurrekoak* (237 heriotza) eta *Alzheimer-en gaixotasuna* (217 heriotza) kokatu ziren. *Gaixotasun zerebrobaskularrak*, berriz, laugarren arrazoa izan ziren emakumeen kasuan.

1. TAULA

Heriotzak, heriotza-arrazoirik ohikoenen arabera. 2022. urtea

Heriotza-arrazoiaren zerrenda laburtua (*)	Datu absolutuak			Ehunekok		
	Gizonak	Emakum eak	Guztira	Gizonak	Emakum eak	Guztira
00A COVID-19 Birus identifikatua	266	271	537	8,3	8,8	8,5
046 Nahasmendu mental organikoak, zahartzarokoak eta zahartzaro aurrekoak	155	237	392	4,8	7,7	6,2
059 Gaixotasun zerebrobaskularrak	170	213	383	5,3	6,9	6,1
018 Trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa	240	102	342	7,4	3,3	5,4
051 Alzheimer-en gaixotasuna	85	217	302	2,6	7	4,8
058 Bihotzeko beste gaixotasun batzuk	123	151	274	3,8	4,9	4,3
067 Arnas sistemako beste gaixotasun batzuk	123	137	260	3,8	4,4	4,1
057 Bihotzeko gutxiegitasuna	88	140	228	2,7	4,5	3,6
072 Digestio-sistemako beste gaixotasun batzuk	101	107	208	3,1	3,5	3,3
056 Bihotzeko beste gaixotasun iskemiko batzuk	110	75	185	3,4	2,4	2,9
052 Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako beste gaixotasun batzuk	92	83	175	2,9	2,7	2,8
055 Miokardio-infartu akutua	106	68	174	3,3	2,2	2,8
064 Beheko arnabideetako gaixotasun kronikoak (asma izan ezik)	122	51	173	3,8	1,6	2,7



Heriotza-arrazoien zerrenda laburtua (*)

	Datu absolutuak			Ehunekoak		
	Gizonak	Emakum eak	Guztira	Gizonak	Emakum eak	Guztira
054 Gaixotasun hipertentsiboak	62	109	171	1,9	3,5	2,7
012 Koloneko tumore gaiztoa	87	54	141	2,7	1,7	2,2
015 Pankreako tumore gaiztoa	71	61	132	2,2	2	2,1
044 Diabetes mellitus	60	71	131	1,9	2,3	2,1
077 Giltzurruneko eta ureterreko gaixotasunak	53	65	118	1,6	2,1	1,9
092 Ustekabeko erorikoak	49	42	91	1,5	1,4	1,4
011 Urdaileko tumore gaiztoa	54	36	90	1,7	1,2	1,4
080 Sistema genitourinarioko beste gaixotasun batzuk	38	50	88	1,2	1,6	1,4
014 Gibeledako eta gibel barneko behazun-bideetako tumore gaiztoa	66	19	85	2	0,6	1,3
Gainerako arrazoiak	903	734	1637	28	23,7	25,9
Guztira	3.224	3.093	6.317	100,0	100,0	100,0

Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.

(*) Gaixotasunen Nazioarteko X. Saillapeneko (GNS-X) "zerrenda laburtuaren" araberrako saillapena. Taulan, ohikoena baino ez dira agertzen. Gainerako gaixotasunak "Gainerako arrazoiak" taldean sartuta daude.

ADIN-TALDEEN ARABERA

Heriotza-arrazoien barruan, aldeak agertzen dira adinaren arabera.

15 urtetik beherakoak. Hildako 15 urtetik beherako hamar pertsonatik ia sei "gainerako arrazoiak" deitutakoen ondorioz hil ziren. Haien barruan, azpimarratu beharrekoak dira *jaiotza inguruko aldiaren sortutako afekzioek eta sortzetiko malformazioek, deformazioek eta kromosoma-anomaliek* eragindako heriotzak.

15-39 urteko biztanleria. 15-39 urteko biztanleen kasuan, heriotza-arrazoi nagusiak *kanpoko arrazoiak* dira, eta heriotzen % 49,3 eragin dituzte azken hiru urteetako batezbestekoan¹. Gizon gazteen kasuan, ehuneko hori % 53,7ra iritsi da, eta emakumeen kasuan, berriz, % 40,5era.

40-64 urteko biztanleria. 40-64 urteko pertsonen heriotzen ia erdiak (% 46,6) *tumoreek* eragin dituzte. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 58,2ra iritsi da, eta gizonen kasuan, berriz, % 40,4ra.

65 urteko eta gehiagoko biztanleria. Heriotza-arrazoi nagusiak *sistema kardiobaskularreko gaixotasunak* (% 24,6) eta *tumoreak* (% 22,4) izan dira. Gizonen kasuan, heriotza-arrazoi nagusia *tumoreak* izan dira (% 28,8), eta adin horretako emakumeen kasuan, berriz, *sistema kardiobaskularreko gaixotasunak* (% 26,7).

¹ 2. taulan urteko datuak agertzen badira ere, hemen azken 3 urteetako batezbestekoa aipatzen da, kasu kopurua txikia baita.



2. TAULA

Heriotzak heriotza-arrazoiaren arabera, adin-taldeak eta sexua kontuan hartuta (%).2022. urtea.

	Guztira				
	Guztira	0-14 urte	15-39 urte	40-64 urte	65 urte eta gehiago
009 – 041 Tumoreak	24,9	18,5	26,2	46,6	22,4
053 – 061 Sistema kardiobaskularreko gaixotasunak	23,8	3,7	13,8	18,2	24,6
001 – 008 Infekzio- eta parasito-gaixotasunak	9,7	7,4	1,5	5,4	10,3
062 – 067 Arnas sistemako gaixotasunak	9,1	0,0	1,5	3,9	9,8
050 – 052 Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako beste gaixotasun batzuk	7,6	7,4	1,5	2,7	8,2
046 – 049 Nahasmendu mentalak eta portaera-nahasmenduak	6,5	0,0	1,5	1,7	7,1
068 – 072 Digestio-sistemako gaixotasunak	4,7	0,0	3,1	5,7	4,6
090 – 102 Kanpoko arrazoiak	4,5	7,4	43,1	10,6	3,4
Gainerako arrazoiak	9,2	55,6	7,8	5,2	9,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

	Gizonak					Emakumeak				
	Guztira	0-14 urte	15-39 urte	40-64 urte	65 urte eta gehiago	Guztira	0-14 urte	15-39 urte	40-64 urte	65 urte eta gehiago
009 – 041 Tumoreak	30,2	26,3	26,5	40,4	28,8	19,3	0,0	25,0	58,2	16,3
053 – 061 Sistema kardiobaskularreko gaixotasunak	22,1	5,3	12,2	21,1	22,5	25,6	0,0	18,8	12,7	26,7
062 – 067 Arnas sistemako gaixotasunak	9,5	0,0	2,0	4,8	10,4	8,6	0,0	0,0	2,3	9,2
001 – 008 Infekzio- eta parasito-gaixotasunak	9,3	5,3	2,0	6,3	9,9	10,1	12,5	0,0	3,6	10,6
050 – 052 Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako beste gaixotasun batzuk	5,5	0,0	2,0	1,9	6,2	9,7	25,0	0,0	4,1	10,1
090 – 102 Kanpoko arrazoiak	5,3	5,3	42,9	12,6	3,5	3,8	12,5	43,8	6,8	3,3
046 – 049 Nahasmendu mentalak eta portaera-nahasmenduak	5,1	0,0	0,0	2,2	5,7	7,9	0,0	6,2	0,9	8,5
068 – 072 Digestio-sistemako gaixotasunak	4,9	0,0	2,0	5,8	4,8	4,5	0,0	6,2	5,5	4,4
Gainerako arrazoiak	8,1	57,8	10,4	4,9	8,2	10,5	50,0	0,0	5,9	10,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.
 Taulan, ohikoena baino ez dira agertzen. Gainerako guztiak "Gainerako arrazoiak" taldean sartuta daude.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es


848 42 34 00



HERIOTZAREN LEKUAREN ARABERA

2022. urtean, heriotzen erdiak baino gehiago ospitaleetan gertatu ziren (guztien % 53,7). Zifra hori, nolanahi ere, aurreko urtekoen antzekoa da. Bizilekuan gertatutako heriotzak, berriz, guztien % 29,8 izan ziren.

2. GRAFIKOA



Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.

HERIOTZA-TASA ESTANDARIZATUAK 2020-2022. URTEETAKO BATEZBESTEKOA

Azken hamarkadan, bi heriotza-arrazoi nagusiak *tumoreak* eta *sistema kardiobaskularreko gaixotasunak* izan dira, gizonen zen emakumeen kasuan.

Sexuaren arabera. 2020-2022 aldian, *tumoreek* gizonen 311,7 heriotza eragin dituzte 100.000 biztanleko², eta *sistema kardiobaskularreko gaixotasunek*, berriz, 221,0 heriotza eragin dituzte 100.000 gizoneko.

Emakumeen kasuan ere, arrazoi nagusia *tumoreak* izan dira, eta 155,2 heriotza eragin dituzte 100.000 emakumeko. Haien atzetik, *sistema kardiobaskularreko gaixotasunek* 138,4 heriotza eragin dituzte 100.000 emakumeko.

Bi sexuetan, heriotzen hirugarren arrazoi nagusia *infekzio- eta parasito-gaixotasunak* izan dira (120,9 heriotzako tasa 100.000 gizoneko, eta 73,9 heriotzako tasa 100.000 emakumeko).

Arnas sistemako gaixotasunak laugarren arrazoi nagusia izan dira gizonen kasuan, eta bosgarrena emakumeen kasuan. Arrazoi horren ondoriozko gizonen heriotza-tasa emakumeena baino 2,2 aldiz handiagoa izan da (88,6 eta 41,1 heriotza 100.000 gizon eta emakumeko, hurrenez hurren).

Azpimarratu beharra dago *infekzio- eta parasito-gaixotasunek* eragindako heriotzen kopuruaren igoera, gizonen zein emakumeen kasuan (27,1 eta 16,1 puntukoa, hurrenez hurren).

² Heriotza-tasa estandarizatuak, Europako biztanleria estandarri jarraikiz (ikus dokumentuaren amaierako oharra).



3. TAULA

Heriotza-tasa estandarizatuak, heriotza-arrazoien talde nagusien eta sexuaren arabera (100.000 biztanleko)


Heriotza-arrazoien talde nagusiak	2019-2021eko batezbestekoa		2020-2022ko batezbestekoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
001-008 Infekzio- eta parasito-gaixotasunak	93,7	57,3	120,9	73,9
009-041 Tumoreak	308,6	159,7	311,7	155,2
042-043 Odoleko eta organo hematopoiéticoetako gaixotasunak (...)	5,2	3,9	4,6	3,5
044-045 Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	27,8	19,3	28,8	19,3
046-049 Nahasmendu mentalak eta portaera-nahasmenduak	40,4	38,8	42,1	38,6
050-052 Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoeetako beste gaixotasun batzuk	56,8	59,7	56,8	58,9
053-061 Sistema kardiobaskularreko gaixotasunak	219,2	139,2	221,0	138,4
062-067 Arnas sistemako gaixotasunak	85,0	41,0	88,6	41,1
068-072 Digestio-sistemako gaixotasunak	45,7	26,4	47,2	26,0
073 Larruzaleko eta larruzalpeko ehuneko gaixotasunak	4,3	3,7	4,4	3,8
074-076 Sistema muskuloeskeletikoko eta ehun konektiboko gaixotasunak	8,0	9,0	8,0	9,2
077-080 Sistema genitourinarioko gaixotasunak	25,0	17,8	26,6	18,9
081 Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa	0,0	0,0	0,0	0,0
082 Jaiotza inguruko aldian sortutako afekzioak	1,1	1,5	1,4	1,0
083-085 Sortzetiko malformazioak, deformazioak eta kromosoma-anomaliak	3,2	2,1	3,5	2,8
086-089 Beste inon sailkatu gabeko sintoma, zeinu eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak	4,0	2,2	4,2	1,6
090-102 Kanpoko heriotza-arrazoia	47,5	23,3	48,3	24,9

Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.



3. GRAFIKOA


Gizonen heriotza-tasa estandarizatuak, arrazoiaren arabera (100.000 gizoneko)



Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.

4. GRAFIKOA

Emakumeen heriotza-tasa estandarizatuak, arrazoiaren arabera (100.000 emakumeke).



Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.




GIZONEN HERIOTZA-TASA HANDIAGOAREN RATIOA

Gizonen eta emakumeen heriotza-arrazoi nagusiak berberak badira ere, gizonen tasak handiagoak izan ohi dira.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, gizonen heriotza-tasa handiagoak eragin dituzten arrazoiak honako hauek izan dira: *sintoma, zeinu eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak*, hildako emakume bakoitzeko gizonen 2,6 heriotza eragin dituztenak (tasa estandarizatuak), eta *arnas sistemako gaixotasunak*, hildako emakume bakoitzeko gizonen 2,2 heriotza eragin dituztenak.

5. GRAFIKOA

Gizonen heriotza-tasa handiagoaren ratioa. 2020-2022. urteetako batezbestekoa



Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.
Lerro urdin bertikalak 1 balioa du, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna adierazten du heriotza-arrazoien arabera heriotza-tasa estandarizatuetan.

COVID-19a

2022. urtean, 537 pertsona hil ziren COVID-19 birus identifikatuaren ondorioz.


Heriotza kopururik handienak urtarilekoak eta uztailekoak izan ziren (urte horretan COVID-19ak eragindako heriotza guztien % 29,4 eta % 20,1, hurrenez hurren).

Heriotza horiek adin handiko pertsonen taldean gertatu ziren batez ere. Hildakoen % 85,5ek 75 urte edo gehiago zituzten.



6. GRAFIKOA

Nafarroan COVID-19ak eragindako heriotzak, hilabetearen arabera



Iturria: NOPLOI eta Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. INErekin lankidetzan.





OHAR METODOLOGIKOA

Heriotzen Estatistika Nafarroako Estatistika Erakundeak egiten du, INErekin eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin lankidetzan, eta azken erakunde horrek kodetzen du heriotzaren funtsezko arrazoia.

Bertan, Nafarroan bizi ziren pertsonen heriotzei buruzko informazioa ematen da, oinarrizko heriotza-arrazoiaren arabera, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenari (GNS-X) jarraikiz.

Oinarrizko arrazoia heriotza zuzenean eragin zuten gertaera patologikoen kateari hasiera eman zion gaixotasuna edo lesioa da. Arrazoia lesio traumatiko bat denean, lesio hilgarria eragin zuen istripuaren edo indarkeriaren inguruabarrak hartzen dira oinarrizko arrazoitzat.

Adinaren arabera **heriotza-tasa estandarizatuak** Nafarroan erregistratuko liratekeen heriotzen kopurua (100.000 biztanleko) adierazten du, biztanleriaren adinaren eta sexuaren arabera egitura ereduazko biztanleria edo biztanleria estandar batena izango balitz (kasu honetan, Eurostatek proposatutako Europako biztanleria estandarra erabiltzen da). Estandarizaziora jotzeak egituran desberdinak diren biztanlerien arteko konparazioa errazten du.

Datuak orraztu egiten dira **3 urteko batezbestekoarekin**. Izan ere, zenbait arrazoiren ondoriozko urteko heriotzak gutxi izaten dira, eta horrek erroreak eragin ditzake kalkulaturako adierazleen interpretazioan. Daturik eguneratuenak 2020-2022 aldikoak dira.

Gizonen heriotza-tasa handiagoaren ratioak arrazoi jakin baten ondoriozko gizonen heriotza-tasa estandarizatuaren eta arrazoi beraren ondoriozko emakumeen heriotza-tasa estandarizatuaren arteko erlazioa deskribatzen du.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Heriotzen estatistika, heriotza-arrazoiaren arabera. 2022. urtea.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

